

Erakutsi “Kikoren Araua” zure umeari

Kalkulatzen denez, bost haurretik bat sexu indarkeriaren biktima da, sexu-abusua barne.
Zure seme-alabei eta inguruko haurrei hori gertatzea saihestu liteke.
Erakutsi “Kikoren Araua” zure umeari.

“Kikoren Araua”



“Kikoren Araua” gidaliburu xumea da, guraso eta hezitzaileei laguntzea du helburu, haurrei erakusteko non ezin dituzten ukitu, nola erreakzionatu behar duten eta norengana jo behar duten laguntza eske.

Zer da “Kikoren Araua”? Erraza da: Haurrek ez lukete onartu behar beste haur edo helduek ukitzea azpiko arropak estali ohi dituen gorputz-ataletan. Eta beraiek ere ez lituzkete beste haurrak edo helduak atal horietan ukitu behar.

Horrez gain, haurrei haien gorputza beraiena dela azaltzen laguntzen du, eta badaudela sekretu onak eta txarrak, eta ukitzeko modu onak eta txarrak.

“Kikoren Araua” nola erakutsi	2
Zergatik “Kikoren Araua”	5
Zer egin abusu-egoeraren bat susmatuz gero	6
Non aurkitu materialak, baliabideak eta informazioa	7

“Kikoren Araua” nola erakutsi

“Kikoren Araua” gurasoei eta zaintzaileei hurrekin elkarrizketa bat hasten laguntzeko ezarri zen. Oso tresna lagungarria izan liteke sexu-abusuaren eta bestelako sexu indarkeriaren aurka babesteko.

“Kikoren Arauak” bost atal nagusi ditu.

1. Zure gorputza zeurea da

Hurrei erakutsi behar diegu haien gorputza beraiena dela, eta inork ezin dituela baimenik gabe ukitu. Adin goiztiar batean sexualitateari eta “gorputzeko zati pribatuei” buruzko komunikazio irekia eta zuzena izatea —sexu-organoen eta gainerako gorputz-atalen benetako izenak erabiliz— lagungarri izango da hurrek zilegi zer ez den uler dezaten. Hurrek eskubidea dute muxu emateari edo ukitzeari uko egiteko, hori egin nahi dien pertsona maite duten norbait bada ere. Ukitze desegoki baten aurrean berehala eta irmotasunez “Ez” esaten erakutsi behar zaie hurrei, eta egoera ez-seguruetatik urruntzen, baita beraien bizipenak konfiantzazko heldu bati kontatzen ere. Garrantzitsua da azpimarratzea behin eta berriz saiatu behar dutela, norbaitek aintzat hartu arte.

Liburuan eskuak baimena eskatzen dio Kikori ukitu baino lehen. Kikok baimena ematen dio. Eskuak azpiko arroparen barruan ukitu nahi duenean, Kikok dio “Ez, hori ezta pentsatu ere”. Gurasoek, familia osoak eta zaintzaileek eszena hori erabil dezakete hurrei azaltzeko edozein unetan esan dezaketela “Ez”.

2. Ukitzeko modu ona – ukitzeko modu txarra

Hurrek ez dituzte beti bereizten ukitzeko modu egokiak eta desegokiak. Hurrei esan behar diegu ez dagoela ondo norbaitek haien gorputz-atal pribatuei begiratzea edo ukitzea, edo norbaitek beste pertsona baten gorputz-atal pribatuei begiratzeko edo ukitzeko eskatzea. “Kikoren Araua” lagungarri izango zaie muga argia eta gogoratzen erraza bereganatzeko: azpiko arropa. Helduei ere lagunduko die hurrekin elkarrizketa bat hasten.

Haurrak pertsona baten portaera egokia den ziur ez daudenean, ziurtatu behar dugu badakitela konfiantzazko heldu baten laguntza eska dezaketela.

Liburuan, Kikok uko egiten dio eskuak azpiko arroparen barruan ukitzeari. Gurasoek, senitartekoek eta hezitzaileek badute hurrei azaltzea balitekeela heldu batzuek (besteak beste, zaintzaileek, gurasoek edo sendagileek) haurrak ukitu behar izatea, baina haurrak “Ez” esatera bultzatu beharko lituzkete, egoera batean deseroso sentitzen badira.



3. Sekretu onak – sekretu txarrak

Sekretuak nahitaezko taktika dira sexu-abusuak egiten dituztenentzat. Horregatik, garrantzitsua da haurrei erakustea zein den sekretu onen eta txarren arteko aldea, eta konfiantzazko giroa sortzea. Sekretu bat, kezkatzen baditu, edo deseroso sentiarazten, beldurtzen edo triste jartzen baditu, ez da ona, eta ez litzateke gorde behar; konfiantzako heldu bati kontatu beharko liokete (gurasoak, irakaslea, orientatzailea, polizia, medikua...).

“Ez” egoera batean deseroso badaude.

Liburuan, eskuak argi eta garbi ezetz esatera bultzatzen du Kiko, norbaitek modu desegokian ukitu nahi badu. Eszena hori erabil daiteke sekretu on baten (adibidez, ustekabeko jai bat) eta sekretu txar baten (haurra gaizki sentiarazten edo urduri jartzen duen zerbait) artean bereizten laguntzeko. Gurasoek, familiak eta hezitzaileek haurrak bultzatu beharko lituzkete sekretu txarrak beraiekin partekatzerara.

4. Prebentzioa eta babesa helduaren erantzunkizunak dira

Haurrak, abusua nozitzen dutenean, errudun sentitzen dira eta beldur dira. Helduok saihestu behar dugu sexualitatearen inguruko tabuak sortzea, haurrek norengana jo jakin dezaten, kezkatuta, urduri edo triste daudenean. Haurrek sentitu dezakete zerbait ez dagoela ondo, baina agian ez dakite nola azaldu edo nori kontatu. Helduek adi eta ulerkor azaldu beharko lukete haien sentimendu eta jokaerarekin. Arrazoi asko egon daitezke haur batek heldu batekin edo beste haur batekin harremana izateari uko egiteko. Hori errespetatu beharko litzateke. Hala ere, haurrek uneoro sentitu beharko lukete gai horri buruz hitz egin dezaketela gurasoekin.

Liburuko eskua Kikoren laguna da. Helduak hor daude, haurrei eguneroko bizitzan laguntzeko. Helduaren arduren artean sexu indarkeriaren prebentzioa lehenengoa eta nagusia da, eta garrantzitsua da haurrek zama osoa beren gain hartu behar ez izatea.





5. “Kikoren Araua” osatzeko aholku lagungarri batzuk

Jakinaraztea

Haurrei esan behar zaie zein diren beren segurtasun-sarearen parte izan daitezkeen helduak. Konfiantzazko helduak —eskuragarri eta entzuteko eta laguntzeko prest daudenak— aukeratzera bultzatu behar ditugu. Segurtasun-sareko kideetako bakar batek bizi behar du haurrarekin; besteek gertuko familiatik kanpokoak izan beharko lukete. Haurrek jakin beharko lukete konfiantzazko sare horretan daudenei laguntza nola eskatu.

Egile ezagunak

Kasu gehienetan, abusuen egilea haurrak ezagutzen duen norbait izaten da. Bereziki zaila da haur txikientzat ulertzea ezagutzen dituen norbaitek abusuak egin diezazkiekeela. Ez ahaztu abusuak egiten dituztenek haurren konfiantza bereganatzeko erabiltzen duten prestakuntza-prosezua. Haurrak ohitu behar ditugu gurasoak, zaintzaileak eta hezitzaileak maiz informatzera, inguruan arrazoirik gabe opariak eskaintzen, sekretuak gordetzeko eskatzen edo haurrarekin bakarrik egoten saiatzen den norbait baldin badabil. Helduei horren guztiaren berri ematea ezarritako araua izan liteke etxean, eskolan eta haurrak egon ohi diren beste edozein lekutan.

Egile ezezagunak

Kasu batzuetan egilea ezezagun bat da. Erakutsi haurrei arau erraz batzuk ezezagunekin jokatzeko moduari buruz: ez igo inoiz ezezagun baten autora, ez onartu inoiz ezezagun baten oparirik edo gonbidapenik, eta abar.

Laguntza

Haurrek jakin beharko lukete badaudela oso lagungarri izan litezkeen profesionalak (irakasleak, gizarte-langileak, herriaren eta haurren defendatzaileak, medikuak, eskolako psikologoa, polizia, eskolako orientatzailea, etab.), eta badaudela telefono batzuk, behar dutenean haurrek beraiek aholkularitza eske deitzeko; besteak beste, Haurrei eta Nerabeei Laguntzeko Europako Telefonoa: 116 111.

Zergatik “Kikoren Araua”

Kalkulatzen denez, bost hurretik bat sexu-indarkeriako motaren baten biktima da. Adin, arraza, gizarte-maila eta erlijio guztietako hurrei gertatzen zaie. Egilea hurrak ezagutzen duen eta haren konfiantza duen norbait izan ohi da. Egilea beste haur bat edo nerabe bat ere izan liteke.

Zure laguntzarekin, zure umeari hori gertatzea saihestu liteke

Haurrarekin komunikazio ona izatea da giltza. Horretarako irekitasuna, erabakitetasuna, argitasuna, eta beldurtzen ez duen giroa behar da.

“Kikoren Araua” lagungarri izan liteke horretan

Inoiz ez da goizegi haur bati “Kikoren Araua” erakusteko, abusuak edozein adinetan gerta daitezkeelako.

Zure umearekin gai horri buruz hitz egitean deseroso sentitzen bazara, gogoan izan agian zailagoa izango dela zuretzat, heldu gisa, haurarentzat baino.





Nola jokatu abusu-susmoaren aurrean

Zure semea edo alaba sexu-abusuaren biktima izan dela susmatzen baduzu, garrantzitsua da harekin ez haserretzea. Haurrak ez du sentitu behar zerbaite gaizki egin duela.

Ez galdeketarik egin haurrari. Baduzu galdetzea zer, noiz eta norekin gertatu den, baina ez galdetu zergatik.

Saiatu zaitetz haurraren aurrean nahigaberik ez adierazten. Haurrek errudun sentitu eta informazioa ezkutatzeko joera dute.

Saiatu ondoriorik ez aurreratzen informazio eskas edo ilunean oinarrituta. Lasaitu umea, neurriak hartuko dituzula esanez, eta jarri zaitetz harremanetan lagunduko dion norbaitekin: psikologoa, haurren zaintzako espezialista, medikua, gizarte langileren bat edo polizia.

Hurrei Laguntzeko Europako Telefonoa (116 111) doako zerbitzua da, eta horretaz arduratzen diren profesionalak garrantzitsua izan litekeen laguntza eta orientazioa eskaintzen diete haur eta nerabeei, gurasoei, familiei, hezitzaileei eta, oro har, hurrekin zuzenean edo zeharka harremana duten heldu guztiei. Telefono horretara jo behar duzu haur bat sexu indarkeriaren biktima izan dela susmatzen duzunean.

Non aurkitu materialak, baliabideak eta informazioa

Europako Kontseiluak zenbait material prestatu ditu familiei eta hezitzaileei "Azpiko arroparen araua" "Kikoren Araua" erakusten laguntzeko.

- Bideo animatu bat, telebistan eta Interneten ikusgai jartzeko.
- Ipuin ilustratu bat, gurasoek 3 urtetik 7ra bitarteko seme-alabei irakurtzeko.
- Kartelak eta postalak.

Osagarri gisa, Hurrekiko Tratu Txarrak Prebenitzeko Elkarten Federazioak (FAPMI) haurren gaineko sexu-abusuari buruzko informazio-gida bat eta gida didaktiko bat prestatu ditu, hurrekiko lana errazteko.

Material hori guztia hurrengo web-orrietan eskuratu ahal izango da: Europako Kontseilak kanpainari buruz duen web-orria:

www.laregladekiko.org

Espanian Hurrekiko Tratu Txarrak Prebenitzeko Elkarten Federazioaren web-orria: www.fapmi.es

"Kikoren Araua" Europako Kontseiluak haurren aurkako sexu-indarkeriari aurre egiteko abian jarri duen "Bostetik bat" kanpainaren barruan dago.

Sustatzen ditugun bestelako prebentzio- eta babes-neurriei buruzko informazioa lortzeko, bisitatu web-orri hau: www.coe.int/oneinfive

